

ANDOAINGO ZESTA PUNTALARIAK HOGEI URTE EGIN ZITUEN AMERIKAN

Juan Inazio Zulaika zesta-puntaz haratago

Andoainen ia txiripaz jaio zen, zestan urte askoan jardun eta gero, Ubiluts industriguneko enpresa batean ari da lanean. Idaztea du gogoko azken urteetan.

Oteiza eskultoreak eta Pelay Orozco idazleak, azken honek sortu zuen Azkonaga pertsonaia nobelatu famatuaren pertsonifikazioa zela esaten zioten.

Andoainen jaioa zarela esan izan duzu beti...

Juan Inazio Zulaika: Herriko bihotz-bihotzean jaiotzea suertatu zitzaidan; Bastero ondoan izaten zen Erramuseneako etxean hain zuzen.

Joan-etorri handiko familia izan da nirea. Amaren aldeko gure aitona Karrantzatik 40ko hamarkadan heldu zen hona; Remigio Barreras zen, eta mendiko lur sailak erosten zituena gero egurra ateratzeko. Maria Goikoetxearekin ezkondu eta Asteasuko Triska base-rrian bizitzen jarri ziren. Aitonak Erramusenea erosi zuen gerora, eta nire ama eta bere ahizpak hantxe jaio eta hazi ziren, Lekuona familiarekin batera.

Nire gurasoak Villabonara joan ziren bizitzera, Agaraiz baserrira; hala ere, ama ni sabelen ninduela, Andoainera etorri zen. Jaio eta hilabete batzuren buruan Anoetara joan ginen.

Nolaz sartu zinen zesta puntan?

J.I.Z.: Tolosan, Beotibarren zegoen pilota eskolan hasi ginen anaia eta biok, eta 14 urterekin profesional bezala debutatu nuen. Zaragozan urtebete eginda Milango pilotalekuan hasi nintzen. 17 urterekin, berriaz, Floridara (AEB) joan nintzen. Floridan eta Connecticuten pilotaria izan nintzen 1989 arte.

Ez zinen oso gaztetxoak etxetik urrun alde egin zenuenean?

J.I.Z.: Munduko gauzarik naturalena zen orduan 14 urterekin tailer batean lanean hasia. Zesta punta ere lan bezala hartzen zen, nahiz kirola izan. Orain pentsaezina da hori, noski.

Egia esan, ez zitzaidan bate- re kostatu, lehenbiziko urtean, Zaragozako bizimodura egokitzea, hango kuadrokoak gehienak hemengoak izanik elkarbitza erraztu zuelako. Gogorra benetan, Milanera joatea izan zen. Egin kontu: Beasaingo bat



Juan Inazio Zulaika Ubiluts industriguneko bere lantegiaren aurrean.

“Amorratuta nago herri honetan esku pilotari jartzzen zaiolako arreta guztia, beste hainbat espezialitate ikusgarri egon arren...”

eta biok trenean, eskuan ezezagun batzuren helbidea jartzzen zuen papertxo basterik ez generamala...

Nolakoa da zesta puntalariaren bizimodua?

J.I.Z.: Paradisia izan zen niretzat bizimodu hori, erabateko askatasuna, errepikatze-ko modukoa berriro jaiotze aldera. Ez zen aberasteko moduko ofizioa, baina diru polita ateratzen zen; eta nola aterako gainera eta, gogoko lana zen kirola eginez.

Pilota gustatuz gero, oso bizimodu erakargarria zen gazte batentzat. Orain hamazortzi urteko Jon semea Floridara joatekoa da jokatzera. Proporzioan, guk baino gutxiago irabaziko du, baina nik animatu egingo dut. Hori bai, iruditzen zait jokoan ari den bitartean ikasten jarraitzea dela biderik egokiena, etorkizuna ziurtatzeko.

Zenbateraino da egia patrika bete diruz itzultzen den zesta puntako jokalaritariaren historia?

J.I.Z.: Ikusi izan dut 1933ko pilotari baten kontratua: 1.200 dolar soldatetan irabazten zuten, eta horrez gain, kinietako sariak. Garai oparo haiek joan ziren gu iristerako, ordea.

Idazteko joera ere baduzu, pilotalekuak utzi ostean batez ere...

J.I.Z.: Beti izan dut irakurtzeko eta idazteko gogo. Lontxo Zulaika gure aitonak bertsoak idazten zituen, eta beharbada harengandik datorkit joera hori... Zesta puntari buruz idazteko (gogoetak, elkarrizketak...) blog bat (txik-txak-zula.blogspot.com) eta web orri xume bat (txiktxak.com) osatu ditut. Gaztelaniaz eta ingelesez idazten dut.

Prentsan ere idatzi izan duzu, eta nahiko poliki gainera...

J.I.Z.: Xabier Lekuona lehen- gusuak proposatuta astero pilotari buruzko zutabea idazten hasi nintzen Egunkaria-n: gero Berria-n ere jarraitu nuen. Gertatzen da pittin bat nekatu egin nintzela, herri honetan arreta guztia esku pilotari jar-

“Gazteleraz hobeto moldatzen naiz, baina memoriak euskaraz egitea da nire ilusioa. Borroka horrekin nabil ezinean”

tzen zaiolako. Beste hainbat pilota espezialitate ikusgarriak izan arren, komunikabideak eta gizartea esku pilotari begira bakarrik jarrita daude. Horrek amorrazioa eragiten dit, eta bloga eta web orria errealitate horren aurkako erreakzioa ere izan daiteke.

Eta zer moduz ETBko Firin-Faran tertulian?

J.I.Z.: Hots egiten zidatenean jotzen nintzen. Gai politikorik latzenei buruzko iritzia ere emateko erreparorik ez nuen eduki. Hala ere, tertuliatik beti irteten nintzen pentsatuz ez nuela neza-keen guztia eman. Hitza hartu edo arrazoi bat garatzerakoan ni baino jende bizkarroagoaz inguratuta egoten nintzen, eta ni lotsatia naizenez...

Zerbait idatzi izango duzu, Amerikan hainbeste urte eginda...

J.I.Z.: Gure aitona 9 urterekin etxetik atera eta morroi eraman zuten baserri batera, gero bertsolari bihurtu zen... Kontakizun ugari izango zuen kontatzeko, eta niri behintzat jakin-mina eragiten dit.

Gure pilotari bizimodua ere nahiko berezia izan da herri honetan, eta niri gustatuko litzaidake memoriak idaztea, ondorengoek gure berri izan dezaten.

Horretara heltzeko, baina, euskararekin daukadan borroka konpondu nahi nuke. Izan ere, Amerikara joaterako euskara galdua neukan, baina han Argia aldizkaria irakurri eta euskara berreskuratu eta idazten hasi nintzen, autodidakta baten moduan. Gaztelaniaz hobeto moldatzen naiz, baina memoriak euskaraz egitea da nire ilusioa. Borroka horrekin nabil ezinean...

Kotoi elkarte berria Andoainen

Hona talde eragilearen oharra:

“2010eko otsailaren 20an, goizeko hamaiketan, Urigain Kultur Etxean elkartu gara Juntak horretarako deituta, Kotoi gastronomi elkarte berriko 41 bazkide. 56 bazkidek osatzen dugu elkarte eta 64 bazkidera zabaldu nahi genuke. Hori dela eta elkarte gastronomiko berri honetan parte hartu nahi baduzu, emaila idatzi etxeberrieta@hotmail.com posta elektronikora eta jar zaitez gurekin harremanetan. Elkarte honen ezaugarri nagusia familiarra dela da, hau da, bikotea da bazkide eta biek erabil dezakete. Mila esker guregan konfiantza jarri duzuen guztiei, eta animo!”

Palestina hizpide Itzalan

Egitaraua, Agenda atalean. Palestina ikuspegi ezberdinetatik irudikatuko da.

Intsumisioa hizpide Gaztetxean

Iñaki Otamendiren hitzaldia.

Intsumisioaren mugimenduari buruzko hitzaldia eman zuen soldaduskaren aurkako Andoingo Talde Antimilitaristako kideak. Otamendik intsumisioaren memoria historikoa aldarrikatu nahi izan zuen, desobedientzia zibilaren eta antimilitarismoaren mugarri izan zen heinean. Andoainen 200 intsumisotik gora izan ziren, eta horietako zenbaitek (Abrego, Huizi, Garmendia...) kartzela zigorra sufritu zuten; aldi berean, mugimenduak gizarte zibileko eta politikagintzako hainbat sektore inplikatzeko lortu zuen. Soldaduskaren desagerketa lortu zen arren mezu antimilitarista gizartean nahi bezala hedatu ez izana etsigarria zela aitortu zuen Otamendik.